

Landare iraunkorrak ere gure baratzetan



Gure baratze gehienetan sasoiko landare ugari daude, hilabete batzuetan beren zikloa betetzen duten landareak alegia. Uzta bildu ondoren, kendu egiten ditugu baratzetik, landare berriei tokia eginez, letxugak, tomateak, edo piperren kasua adibidez.

Baina gure baratzeetan landare iraunkorrak landatzeko aukera ere badago, leku berean urte asko bizitzeko gai direnak eta urtero uzta ematen digutenak.

Baina, nola landatu beharko genituzke landare iraunkorrak, sasoikoak landatzeko orduan oztoporik ez edukitzeko? Ez dago inolako sekreturik: egokiena gure lursaileko izkinetan edo mugetan landatzea da; horrela beste lur guztia libre geratuko zaigu sasoiko kultiboak landatzeko, lurra oztoporik gabe prestatu ahal izango baitugu.

Zer onura dakarkigute baratzeko landare iraunkorrek?

Mantentze-lan gutxi eskatzen dute landare iraunkorrek. Urteko landareek baino sustrai sakonagoak dituzte, eta, beraz, landare sendoak sortzen dituzte, izurriteei eta gaixotasunei aurre egiten dietenak. Gainera, baratzean etengabe espazio bat hartzen dutenez, eremu horietan belar txarrak ugaltzea eragozten dute.

Baratzetan landatzeko iraunkorren zerrenda luzea da, baina hemenxe uzten dizkizugu adibide batzuk:

✓ Arabarba (*Rheum rhabarbarum*)

Arabarba-landarea 20 urtera arte bizi daiteke. Zurtoinak biltzen dira kontsumitzeko, baina kontuz ibili hostoekin, pozoia baitute! Arabarbaren ondoan marrubiak jarri daitezke (beste landare iraunkorra da ere), lurra erabat estaliko baitute, belarrak sortzeari oztopatuz.

✓ Azedera (*Rumex acetosa*)

Azederaren hostoak neguan desagertzen diren arren, sustraiek bizirik diraute, udaberriro lurretik hosto berriak sortuz. Ez utzi hostoak gehiegi zakartzeko, hobe hosto gazteak biltzea, udaberriko entsaladei beraien zapore berezia eman dezaten.

✓ Porru-tipula (*Allium schoenoprasum*)

Porru-tipula landare sendoa da. Honen hosto luze eta meheak aprobeztatzen ditugu, ipurditik moztuz, entsaladak, zopak edo pureak aromatizatzeko. Hosto-multzo bat ebakitzen dugun bakoitzean, landareak hosto berriak sortzen ditu. Porru-tipula indartsu hazten da, eta udaberriaren komeni da landarea zatitzea eta puskak espazio berrietan birlandatzea (edo oparitzea lekurik ez baduzu...).

✓ Zainzuria (*Asparagus officinalis*)

Zainzuriak leku eguzkitsua behar du, haizetik ondo babestua, eta lur arinak. Aldiz, gure baratzeko lurra astuna bada eta sarritan putzuak sortzen bazaizkigu, alferrikakoa dugu zainzuria landatzea. Baina, leku egokia eta behar diren zainketak emanez gero, 20 bat urtetan zainzuri goxoak jasotzeko aukera izango dugu.

✓ Alkatxofa edo orburua (*Cynara scolymus*)

Orburu landarea urte askoan bizi dadin, hotzetik ongi babesturiko eremuetan landatu behar da, ondo drainatzen duten lurzoru solteetan, eta ongari ugari erabiliz.

Landatzeko asmoa baduzu, gogoratu lur-zati handi bat gorde behar diozula, tamaina handiko landarea baita (bai altueran, bai zabaleran). Baina behar duzun lekua eta eremua baldin badituzu, merezi du: urte askotan orburuak jaso ahal izango dituzu negu-udaberriro.

✓ Baratxuri berria (*Allium sativum*)

Ziurrenik baratxuriak landu dituzula noizbait. Baina, badakizu landare iraunkor gisa ere landu dezakezula baratxuria?

Horretarako, erraboilak lurrean utzi behar dituzu denboraldi pare batez, ugaltzen joango dira bere gisa. Azkenean, errabaila txiki mordoia izango duzu, eta ez dizute baratxuri-bururik emango, baina bai baratxuri berri goxoa jateko (hostoak), tarteka moztu ahal izango dituzunak.